

SH.E egungoa

S i n d i k a | H e z i k e t a

Egoera ekonomikoaren azterketa. 2000. urtea


ILAB
Hezkuntza

**ZA
BAL
TZEN**

Zbkia

SKH 00008

DOKUMENTAZIO
ZENTROA



**Egoera
ekonomikoaren
azterketa.
2000. urtea**

Egileak:

Joselu CERECEDA

Rafa IZQUIERDO

Gai ekonomikoetarako Idazkaritza

Argitaratzailea: **Ipar Hegoa Fundazioa.**



EUSKO JAURLARITZA
JUSTIZIA, EKONOMIA, LAN
ETA GIZARTE SEGURANTZA SAIA



GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
ECONOMIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

2001eko Apirila




Egoera ekonomikoaren azterketa. 2000. urtea

EKONOMIAREN EGOERARI BURUZKOAK	5
2000 URTEA: EKONOMIA HAZKUNDEA ETA BEHIN-BEHINEKOTASUN GOGORRA ..	7
LAN ERREFORMA ETA MALGUTASUN HANDIAGOA 2001. URTEAN	13
ERANSKINA	14



Ekonomiaren egoerari buruzkoak



Idazkaritza Tekniko Ekonomikoan, 1999.ko ekonomiaren egoera aztertu genuenean, gertaera ekonomikoak epe luzeko ziklotan garatzen direla esaten genuen, beren goraldiez eta atzeraldiez, eta, ziklo luze hauetan badirela epe laburreko zikloak. Hauek, ere, badituzte goraldiak eta atzeraldiak.

Aipaturiko garai hartan, munduan, ekonomiak hazten ziren epe laburrean, baina luzeko joera ekonomikoa beheraldi sakon batean aurkitzen ziren. Hauxe bera zioen oso ortodoxo eta batiere alarmista ez den idazle ezkeriar Samir Amin-ek, zeini, beste behin, Historiak arrazoia eman dion.

EEBBetako ekonomia desazelerazio batean sartu da, hots, orain astiroago hazten da, epe laburreko tontorrera ai-

legatzen ari delako, alde batetik, eta epe luzeko joera beheranzkoa delako, bestetik. Itxura guztien arabera EEBBetako ekonomiaren desazelerazioa areagotuko da.


Sisteman, bada ekoizpen ziklotik at dagoen dirutza, pilatzen delako eta ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko jadanik erabiltzen ez delako, eta mota guztietako espekulazioa garatzeko erabiltzen delako. Dirutza honen zati handi bat burtsetara doa, kotizazioen gorabeherak sortaraziz.

EEBBetako ekonomiaren desazelerazioak Wall Street-ik fondoak ihesa eragin zuen, EEBBetako kotizazioen jeitsiera eta kutsapenez, gauza bera Europan. Etsipen honek beldur-ikara eta kotizazioen jeitsiera berriak eragin zituen. Martxoaren amaieran prozesu

honen geldialdia gertatu zen, baina litekeena da berriro gertatzea. Mugimendu espekulatiboak ez dira gertatzen logikaren arrazoiek bultzaturik, dirutza handien jabeek eraginda baidiz, eta mundu zabalean erraztasun izugarriaz zabaltzen dira.

Lehenago eta behin, zera esan behar da: gaurkoz, kotizazioez ez dute ez ekonomiaren errealitatea ez enpresen balio erreala ere islatzen. Espekulazioak, Burtsak teorikoki bete behar lukeen papera desitxuratzen du. Gaur, ekonomiak beheranzko atzerapena dauka, besterik ez. Ez dago hondamendi ekonomikorik ezta etorkizun ilunbetsurik. Finantza-espekulazio kapitalak nahi duenean, Burtsako "cracka" bukatuko da (kapital hau, burtsak, gobernuak, ekonomiak hondoratzeko

Egoera ekonomikoaren azterketa. 2000. urtea



gai da...).

Bigarrenez, ekonomia bultzatzeko banku zentralak korritu-tasak jeistea beharrezkoa dela esaten da etengabe. Korritu-tasek oso gutxi egin dezakete. Ekonomia bat berpizten da enpresalmozkinak direnean eta horretarako gobernuak fondoak destinatze prest daudenean. Teoria neoliberala, ekonomian sektore publikoaren parte hartzearen aurka dago, gero eta gehiago. Ustelduta dagoen sozialdemokrazia lotsarazten duen Keynes ekonomilaria "lurperatu" nahi du Neoliberalismoak.

Bestaldetik, aditu askok Europako ekonomia EEBBetakotik deslotu nahi dute,

zerikusirik ez balute bezala. Baina EEBBetako ekonomia munduko ekonomiaren motorra, bultzatzailea da eta, gustoko izan ala ez, bere bilakaearak mundu osoan eragina dauka.

Beraz, ezin dugu permititu, asaldakeriek eta triumfalismo faltsuek bultza gaitzatela. Ekonomiak bere ildoari jarraitzen dio eta ugazaberiak baita ere. Patronala ezin dugu paketean utzi; langabeziaren eta behin-behinekotasunaren aurkako borroka, paktatuta eta miserablea den Lan Erreformaren aurkako borroka, eta Lan Harremantarako Euskal Esparru baten aldeko borroka aurrera eraman behar ditugu eten barik.

2000 urtea: ekonomia hazkundera eta behin-behinekotasun gogorra

Testuinguru ekonomikoa

2000. urtea ekonomia hazkundera gertatu den elkarren segidako zazpigarren urtea izan da, 1992-93 tartearen krisi gogorra gainditu ondoren. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaiko Barne Produktu Gordinaren (BPG) batuketa %4,3 hazi zen aurreko urtea erreferentziatzat hartuta. Beraz, ondasun sortuaren balioa, gure inguruko ekonomiez gain ipini zen. Europar Batasuneko BPG %3,3 hazi zen eta Frantziako eta Espainiako Estatuetan, %3 eta %4 hurrenez hurren.

Hala eta guztiz, urtearen bigarren erdian desazelerazioaren lehendabiziko zantzuak nabaritu ziren, hazkunde ermitoari bagagozkio. Gertaera ekonomikoa hau, indar handiagoz suertatu da lan merkatuan, enpleguaren sormena geldiaraziz.

Euskal ekonomian, beste behin, Industria sektoreak, traktore-papera izan du, hirugarren hiruhilekoan sektorearen geldia gotze gertatu arte, ekipondasunen ekoizpenak eraginda (makineria, ibilgailuak...).

Europar sorturiko inflazio-tentsioek, Europako Banku Zentralera (EBZ) korritu-tasak sei bider igotzera bultzatu zituzten, %3tik gaurko %4,75ra. Dirusalneurriaren hazkunde honek, itxaropide ekonomikoek makalduta zeuden inbertsioak gutxitzen lagundu du.

Hala inflazioak nola korritu tasek, inbertsioan eta familien kontsumoan -azken hau ere, enpleguaren bilakaerak negatiboki eraginda- ondorio atzeragarria izan dute.

BPGean Kanpoko Balantzearen - esportazioak ken inportazioak - eragina negatiboa izan da, baita ere, eta, gainera, beste arrisku bat dago, Europako eta gainontzeko mundukoaren ekonomiaren hazkunde-tasa txikiagoak eragindako beheranzko joeran, esportazioak sar daitezela.

Aldi berean, Europako ekonomiek zeukaten desazelerazio moderatua areago daiteke, munduko ekonomia-aren motorra den EEBBetako ekonomia-aren geldia gotze gogorrak bultzatuta.

Etengabeko hazkunderaren hamarkada bat izan ondoren, EEBBetako ekonomia atzeraldian sartu da. Gertaera honek, zikloak - hala epe luzean zein laburrean- ekidiezinak direla burura dakarkigu, nahiz eta batek baino gehiagok, teknologia berrien eta ekonomia globalizatutaren garaian, etengabeko hazkundera mugagabea izan daitekeela konbentziaz nahi digun.

Bien bitartean, enpresarien mozkinak hazi eta hazi dira, hiruhilabetero errentagarritasun errekor berriak markatuz, Balantzeen Zentralaren arabera.

Baina soldata izendatuez, nominalaz, ez da gauza bera gertatzen. Prezioen


Egoera ekonomikoaren azterketa. 2000. urtea

igoerak eragindako eros ahalmenaren galera konpentsatzeko beste ez dira igotzen, sari, soldata errealean erorketa bat gertatuz.

2000ko inflazio-tasa %3,9 izan zen, hitzarmen kolektiboetan sari igoera paktatuta %3,8 inguruan izan zen bitartean. Testuinguru honetan, soldatei inflazioa leporatzea eta enpresarien milioi askotako mozkinak kontuan ez hartzea iraingarria da.

da, enpleguaren ezegonkortasuna, soldata txikiagoak, lanaldiaren desregulazioa eta lan eskubiderik eza. Eszenatoki honek ez du zerikusirik aznariana den "dena ondo doa" esaldi ospetsuarekin.

Nor baliatzen da behin-behinekotasunaz?. Dudarik gabe, ugazaberia, patronala. Honek, trikimailu zikin hauek lantaldea disziplintatzeko erabiltzen ditu, bere mozkinak ahalik eta handie-



Ageri denez, ekonomia hazkundearen onura ez da berdina guztientzat, nahiz eta enplegu handiagoa suposatu. Zentzu honetan, sari errealean galera ziurtatuaz gain, ezin ditugu ahaztu enplegura ailegatzeko dauden behin-behineko baldintzak, batez ere gazteei eta emakumeei bagagozkie.

Guzti honen emaitza agerian dago: aldikotasuna, lanpostuetan gehiegizko errotazioa, zabor-kontratuak, ABLE-ak, azpikontratazioa, langileen mailegukeria, ...edo beste era batean esan-

nak metatzeko, behin-behineko baldintzatan lan istripuak bikoizten direla kontuan hartu gabe. Lan istripu arazoak 159 biziak xurgatu zituen 2000. urtean. Honek, nahikoa izan beharko luke, ustiapen jardunbide hauei amaiera emateko.

Behin-behinekotasuna kontratazioan

2.000. urtean, Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroa Garaian erregis-

tratutako kontratuen batuketa 881.500 izan zen, baina %8 baino ez ziren mugagabeak izan. Nahiz eta datu hau kontratazioan dauden behin-behinekotasun mailez jabetzeko nahikoa izan, zernolako kontratuak maiztasun handiz erabiltzen diren kontuan hartzea, garrantzitsua da baita ere.


Kontratu mugagabeen %55 baino gehiago - hala sorrera berrikoak zein aldi baterakoak konbertitu ondorengoak - *mugagabeko kontratazioa* sustatzeko motatakoak dira, 1997. urtean sortu zen modalitatea. Hala eta guztiz, kontratu mota honek eskeintzen dituen bermeak kontuan hartzen baditugu, hobe litzateke "kaleratze askea sustapenerako" deitzea.

indarrean ipini zenetik, sinatutako kontratuen %30 deuseztatu dira jadanik.

Kontratu mugabeen beste zati garrantzitsu bat, %19 hain zuzen, denbora partzialekoak dira. Nahiz mugagabe zein aldi baterako izan, denbora partzialeko enplegua lan bizitza eta familia bateragarria izateko egiten dela esaten da, baina emakume langilea dauka helburu, batez ere.

Bitartean, praktikan, *mugagabe arrunta*, ugazaberiak ia ia ahaztuta daukan lan kontratu mota bat da, zeren sinaturiko kontratuen %2 baino ez baitu suposatzen.

Bestaldetik *ekoizpen arrazoiegatiko aldi baterako kontratua* gehien erabiltzen den eredu da, eta guztizko kontrata-



Mugagabe berria izeneko kontratuak, legez kontrako kaleratze dela eta, *mugagabe arruntak* baino indemnitazio txikiagoa dauka. Horregatik, hain zuzen,

zioaren %33,5 da. Prinzipioz, lanen metaketa edo eskaeren gairikina eragiten dituzten arrazoiak gairik ez diren erabili behar litzateke kontratu mota hau.

Egoera ekonomikoaren azterketa. 2000. urtea

Gehien erabiltzen den hurrengo lan kontratu mota *obra edo zerbitzu* deiturikoa da, %26,5 suposatuz. Lan kontratu honen helburua zera da: denborari dagokionez mugatuta dagoen baina iraupen ezezaguna duen lan bat gartzeta, berezko autonomiaz enpresaren jardueran.

Errealitatean, aitzitik, bi lan kontratu mota hauen bidez, ugazaberiak gero eta gezurrezko kontratazio gehiago egiten du, lanpostu tinkoak betetzeko. Lan agintaritzak hau baimentzeko daukan joera - Lan Ikuskapena barne - ere salagarria da, erabat.

emakumeak baitira, nahiz eta langabezian dauden emakumeen %6a baino ez dabil denbora partzialeko lanbaten bila.

Kontratu honen denborazko izaerari beste behin-behinekotasun ezaugarri bat gehitzen zaio, zeren lanaldia txikiagoa denez, soldata txikiagoa eta giza-estaldura okerragoa baitira.

Langileek daukaten behin-behinekotasun maila ezagutzeko beste ikuspegi bat kontratuen iraupena da. 2.000.urtean, iraupen zehatza daukaten aldi baterako lau kontratutik, hiruk hiru hilabeteko edo gutxiagoko irau-

ba-tzuetara bidaltzen dituzte eta kontratu hauen erdiak bost egun baino gutxiagoko iraupena dauka eta %90ak urte bat baino gutxiagokoak dira. ABLEk daukaten bitartekotze gaitasuna hain garrantzitsua den zeren sinaturiko kontratuen %20 kudeatzen baitute.


Lan Merkatuaren egoera

Gaurko egoera ekonomikoa dela eta, instituzio guztiak, hala publikoak zein pribatuak, beren aurreikuspenak murrizten hasi dira eta, ondorioz, litekeena da, azken urteotan izan dugun lan-sormenaren prozesuak pausaldi bat izatea.

Euskal Herrian jadanik lehendabiziko zantzuak agertu dira. Egoera hau luzatuz gero, enplegua lortzeko zailtasun gehien daukaten taldeek ere beren lan merkatura sartzeko prozesua etenda ikusiko dute (emakumeak eta gazteak, batez ere).

Nahiz eta azken hamabost urteotan lan merkatura emakumearen sarrera goranzko izan, emakumearen jardueratasua, gizonetzkoenatik urrunegi dago oraindik (%41 eta 65 hurrenez hurren). Gazteak ere, jardueratasu baxu bat dauka, baina kasu honetan 25 urte baino gutxiagoko gehiengo ikasten da goela esan daiteke.


Langabeziari dagokionez, gizartearen taldeen arteko desberdintasun nabariak daude, baita ere. Grafikoan ikus daitekeenez, gazteak %23ko langabezi-tasa dauka, biztanleria landunenaren erdia. Emakumetan, langabezia-tasa %17,2 izan zen, gizonetan %6,7 izan zen bitartean.



Denbora partzialeko lan kontratuak toki nabarmen bat dauka ere usantza kontraktualetan (kontratazio osoaren %19,5) eta emakumeak ditu helburu, batez ere, zeren kontratu hauen %70,8

pena daukate.

Baina ABLEek eginiko kontratuak, lan baldintzarik nazkagarrienak daukatenak dira. Enpresa hauek kontratatzen dituzten langileak beste enpresa



Iturria: EPA, 2000.urteko batz bestekoa.

Jarduera eta langabezi tasek, enplegu bat lortzeko gehien diskriminatuta dauden taldeak gazteak eta emakumeak direla argi eta garbi adierazten badute, behin-behinekotasun handiena daukatenak haiek ere direla ziurtatzeko aldikotasun tasak aztertzea besterik ez dago.

Ihaz, soldatapeko gazterien %69,5ak aldi baterako kontratu bat zeukan, eta adina hazi ahala aldikotasun tasa beherantz joan arren, praktikan, soldatapeko biztanleriaren herena egoera ezegonkorrean lan egiten jarraitzen zuen (%30,1). Edozein kasutan, eta adinaren tarte guztientzat, emakumeek gizonak baino behin-behinekotasun larriagoa pairatzen dute, lan baldintzei bagagozkie.

Behin-behinekotasuna Kapitalismoaren oinarritzko zutabe bat da gaur

egun, eta euskarri honetaz, ugazaberi, etekinen metaketa areagotzeko baliatzen da. Baina, baita ere, Estatuak eta beren gobernuek paper garrantzitsu, oso, daukate eredu ekonomiko honetan, Kapitalak eskatzen dutena egiten dutelako eta lege-aldaketak bultzatzen dituztelako (kontratuen erregimena, kaleratzearen arautegia, langabeziaren estaldura...) enpresarien interesen mesederako.

Lan Erreforma bakoitza ez nahikoa iruditzen zaie eta lan merkatua malguga bihurtzearen beharra aipatzen eta eskatzen dute etengabe, hala enplegua sortzeko nola bere egonkortasuna errazteko. Ez da egia, ezta pentsatu ere. Enpleguaren sormenak ziklo ekonomikoarekin baino ez dauka zerikusirik, eta lan malgutasunak patronalak inposatzen duen - kudeatzaile politikoaren laguntzaz- ustiapen mailarekin.

Egoera ekonomikoaren azterketa. 2000. urtea

Araba - Bizkaia - Gipuzkoa Nafarroa Garaia	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Gazteak
Landunak	1.020.100	388.800	631.300	106.800
Langabetuak	125.600	80.500	45.100	32.000
Langabezi tasa	11%	17,2%	6,7%	23%
Enplegu tasa	46,3%	34%	59,6%	32,8%
Iharduera tasa	52%	41%	63,9%	42,7%
Aldikotasun tasa	30,1%	36,5%	25,8%	69,5%

Iturria: EPA, 2000.ko batz bestekoa.

1997. urtean CCOO eta UGT sindikatuak, *kontratu mugagabe berria* onartu zutenean, helburua enpleguaren egonkortasuna sostengatzea zela zioten. Lau urte igaro ondoren, aldikotasun tasa %31,4tik -1997. urtean-%30, lra pasatu dela ziurtatzen dugu. Hauxe da, Akordio haren "arrakasta sindikala".

Aldikotasun arazoak konpondu barik darrai eta ezerezaren truke, ugazaberiaren kupidagabeko kaleratzearen aurrean berme txikiagoak dituen kontratu mugagabe bat sortu zen. Arrazoi honengatik *kontratu mugagabe arrunta* arian arian kaleratze merkeago duen *mugagabe berriak* ordezkatzten du. Gaur egun, langile tinkoen %25 baino gehiagok kontratu mota berri hau dauka.

Nahiz eta aldikotasun zenbakiak gero eta mozorratuago egon, argi dago sorturiko enplegua prekarioa dela. Batzutan, aldi baterako kontratuen bidez, zeren Confebask-ek dioenez, arazo ez da aldi baterako kontratazioa zigortzea, baizik malguagoa egitea,

kontratazioa erakargarriagoa bihurtzeko. Beste batzutan kaleratze indemnitazioa jeitsiz, zeren kaleratzea merketzen ez bada, aldikotasuna harrapaladan igoko baita.

Ugazaberia bere aspaldiko ametsak alde batera uzteko ez dago prest: kaleratzea merketzen jarraitu (lan egini-ko urte bakoitzeagatik, 25 egun baino gutxiago), eta kaleratze kasuan, babes judiziala desagertarazi. Asmo hauekin, enpresariak enplegu osoarekin konpromisoa daukatela ezin dugu sinetsi. Euren ahalegin handiena enpleguaren behin-behinekotasun osoan datza.

Eta bitartean, ugazaberiak; lorturiko beherapenak direla eta, Gizarte Segurantzari eginiko ordainketak murriztea lortu du. 1997ko Lan Erreformaz, aipaturiko beherapenak indarrean ipini zirenetik, azken lau urteotan, Gizarte Segurantzako Diruzantza Nagusiak eta bere Kutxa Bakarrak bilioi bat pezeteta gutxiago jaso du. Non dago Gizarte Segurantzaren krak, porrot ospetsu hori?

Lan erreforma

eta malgutasun handiagoa 2001. urtean

Lan Erreformaren bidez, PPK behin-behinekotasuna areagotzen du

1.997. urtean CCOO eta UGT sindikatuek eta CEOEk Lan Erreforma bat adostu zuten, "lan malgutasuna"-ri bide zabal bat irekiz Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroa Garaian, bere gaitzespena agerian utzi zuen gehiengo sindikala mesprezaturik. Orain, Espainiako Gobernuak bere mehatxuak bete ditu, beste Lan Erreforma bat indarrean jarriz, irekitako bidea sakonduz.

Hemendik aurrera, patronalak tresna gehiago izango du, legez kanpoko kaleratzea zabaltzeko, indemnizazio txikiagoz, lan taldeak malgutzeko, enpresariak Gizarte Segurantzari ordaindu behar dizkieten kuotak murrizten diren bitartean. Lan Erreforma berri honek ez du enplegu egonkorra bultzatzen, baizik eta lan eskubideak murriztu nahi ditu eta aldi berean, enpresarioren aurrean langileek daukaten botere negoziatzailea ahuldu eta lan kostuak gutxitu nahi ditu baita ere.

Hauxe da sindikatu espainolisten geldotasunaren eta lankidetzaren estrategiaren emaitza. Egoera honen aurrean euskal gehiengo sindikal desmobilizatzeko ez dago inolako aitzakirik.

Alderantziz, koiuntura berak eta euskal esparruaren aurkako etengabeko erasok - gai soziolaboralean ere - Lan Harremanetarako Euskal Esparru baten alde indar handiagoz borrokatuzera bultzatzen gaituzte.

Nola? 1.999.ko udaberrian erakutsi genuen borroka-gaitasuna berreskuratuz

eta dinamizatuz, gogoz, ilusioz, Euskal Herriko langileentzako funtsezkoak diren bi aspektu patronalak negozioa ditzala lortu arte:

- 1) Lanaldia 35 orduara murriztea, enplegua sortzeko.
- 2) Behin-behinekotasuna murrizteko mugak ipintzea, kalitazteko enplegua bultzatzeko.

"Ezerezatik jaio izanak ...

gabeziaren kotarik altuenetara ailegatzeko ari gara". Hauxe zioen Groucho izeneko Marxek. Parkatu irakurle, tonu trufagarriaz, baina ugazaberia eta sindikatuak, Estatuan Lan Erreforma "negoziatzen" hasi zirenetik, dena gustu txarreko saine bate bat izan da, benetan. Negar egin beharrean, barre egitea nahiago dugu. Baina dena abisu serio bat izan da: edo bene-tazko Lan Harremanetarako Euskal Esparru bat halabeharrez lortzen dugu edo iraingarri, esperpentiko den Lan Mundu batean sartuko gara betiko. Mundu horretan, behin-behinekotasuna, ez-jarraitasuna, zehazgabetasuna eta informaltasuna Lan Merkatuaren indarrean dauden oinarriak izango dira. Kapitalaren, enpresariaren aspaldiko ametsa.

Antzezpena lotsagarria izan zen: sindikatuak eta ugazaberia ez ziren ados jartzen. PPKo gobernuak - denok dakigu bere erro ideologiko-historiko ebidentek, ukaezinak - akordio batera ailegatzeko ez bazen, Erreforma "dekretazo" batez ezartzeaz mehatxatu egin zuen.

Ugazaberiak - PPrekin daukan identifikazio ideologikoa dela eta, alde zurririk

gobernuaren jarrera jakingo luke, noski ez zuen ezer egin inolako akordiorik hartzeko, "dekretazo" bere aldekoa izango zela ondo baino hobeto baitzekien.

Bitartean, sindikatuek zapokeriaz beteriko geldotasuna erakusten zuten, bazurdi gertaerak nola garatzen zirenekin ados zeudela edo "97. urtean azken Erreforma sinatu genuen eta mundu guztia gure aurka paratu zen. Ba, orain ez da ezer sinatzeko beharrezkoa izango, ez gara "errudunak" izango. Askoz hobe, eta gainera, patronala eta gobernuak pozik egongo dira gurekin", pentsatu zutela.

PPk erakutsitako kopeta sinesgaitza izan da. Akordio bat lortzen bazen, bere kabuz neurri batzuk gehituko litzukeela esatera ausartu zen. Eta orain, sindikatuek eta ugazaberiak beste gai batzuk negoziatzen jarraitzearekin nahi du, "Estatu kolpea" - parkatu, dekretazo - ahaztuz, baina negoziatzearen emaitzak bere "gustokoak" ez balira, beste dekretu-lege bat egingo lukeela esanez. Edozein gauza. Dena "dekretazoz-dekretazo" egiten zen 60-70 urtetako garaia burura datorkigu.

Patronalaren pozaldiak izugarria izan behar du. Ikus ditzagun "dekretazoaren" bertuteak: formaziozko lan kontratu zaborren ezarpena, etorkinei, bazterketa soziala pairatzen dutenei, edo hiru urte baino gehiago langabezia daudenei zabaltzen zaie; desáruitze eta malgutasun handiago denbora zatitzeko lan kontraturako, arlo publikoan, lan kontratuak deuseztatzeko kasu berri bat sartzen da; 65 urteko derrigorrezko erretira ezabatzen da;...

Aldi baterako kontratazioan egiten den iruzurraren aurka ez da borrokatzen, aldi

Egoera ekonomikoaren azterketa. 2000. urtea

baterako lan kontratuak amaitzen direnean, kalte-ordainketa erridikulu bat ezartzen da: lan egindako urte bakoitzagatik, 8 egun (hilabete bakoitzagatik, 0,66 egun). Neuri honek ez ditu aldikotasun tasa handiak murriztuko, baina iruzurra "normalizatuko" du.

"Dekretazua" arreta handiz irakurtzen bada zera ondorioztatzen da: 97. urtean sortu zen kaleratze merke baino merkegagoko lan kontratu mugagabeak, lan kontratu mugagabe arrunta ordezkatzeko nahia. Lan mugagabe berriandorongoak sar daitezke: 16-30 urteko gazteak, 45 urte baino gehiagoko langileak, emakume gutxien kontratatzen diren lanetan prest jarduteko dauden emakumeak, gutxitu fisikoak, eta sei hilabete baino gehiagotan enplegu bilatzeko erregistratuta daudenak. Helburua argi dago: Siste-

ma Kapitalistak aurrehistorian zituen Lan Harremanetara itzultzea. Onartezina, noski.

Are, PPko ekonomia erantzuleek - enpresario hutsak dira - "hitzarmen kolektiboen hiperjarduera" deritzona ezabatu nahi dute. Mekanismo honen bidez, nahiz eta komenio batek epea beteta izan, bere mamiak indarrean segi dezake. Beraz, sindikatuek, aurreko komenioan lorturiko eskubideak, bernegoziatu beharra izango lukete. Gainera, negoziazio kolektiboa banakatu nahi dute, eremu estataleko sektoreko komenioen gaiak mugatuz eta gainontzekoak enpresa eremutan utziaz; autonomiko eta probintziako eremuko komenioak desagertuko lirateke.

Ilunbetsu, sataniko, Lan Harremanetarako Euskal Esparru baten aurkako eraso zuzen bat da. Kapitalismo hutsa, gogorra,

"Una, Grande y Libre" baten barruan. Betikoen betiko ametsa. Eta ikusiko dugu zer gertatuko den Toledoko Hitzarmenaren bernegoziazioa eta pentsioekin. Hain "langilea" den gobernu batekin eta hain "borrokalari" diren sindikatuekin, beldur izateko modukoa.

Hausnarketa sakon eta serio bat, jarrera hauen aurkako eta Lan Harremanetarako Euskal Esparruaren aldeko erreakzio tinco eta apropos bat behar-beharrezkoa da, politikoki eta sozialki suposatzen duen guztia kontuan hartuz: borroka politikoa, borroka ideologikoa, etengabeko indar-metaketa, langileek beren aldeko den indar korrelazioa dagoen eta benetako protagonismoa izan dezaten Euskal Esparrua errealitatea bihurtu arte. Presa barik, baina etendura barik. Gure mesederako.

Eranskina

2000 URTEAN EGINIKO KONTRATUAK. Ehuneko bertikalak. (Araba - Bizkaia - Gipuzkoa - Nafarroa Garaia)

	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Gazteak
MUGAGABEAK				
Ohikoak	2,0%	1,2%	2,7%	0,5%
Sustapenekoak	3,0%	2,4%	3,6%	2,8%
Bihurtuak	1,4%	1,0%	1,8%	0,9%
Aldi partzialekoak	1,6%	2,2%	1,0%	1,5%
Gainontzekoak	0,1%	0,0%	0,1%	0,0%
GUZTIRA	8,1%	6,9%	9,2%	5,7%

ALDIBATERAKOAK				
Obra edo zerbitzukoak	26,5%	17,6%	34,4%	23,5%
ekoizpenetakoak	33,5%	29,7%	36,9%	37,8%
Bitartekoak	9,3%	13,8%	5,3%	6,7%
Aldi partzialekoak	19,5%	29,5%	10,8%	21,5%
Praktiketakoak	1,3%	1,2%	1,4%	2,4%
Prestakuntzakoak	0,5%	0,3%	0,6%	1,4%
Gainontzekoak	1,3%	1,2%	1,4%	1,1%
Guztira	91,9%	93,1%	90,8%	94,3
GUZTIRA	100%	100%	100%	100%

**2000 URTEAN EGINIKO KONTRATUAK. Ehuneko horizontalak.
(Araba - Bizkaia - Gipuzkoa - Nafarroa Garaia)**

	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Gazteak
MUGAGABEAK				
Ohikoak	100%	29,0%	71,0%	8,4%
Sustapenekoak	100%	36,5%	63,5%	33,1%
Bihurtuak	100%	33,5%	66,5%	23,1%
Aldi partzialekoak	100%	66,9%	33,1%	34,7%
Gainontzekoak	100%	22,9%	77,1%	11,5%
Guztira	100%	39,8%	60,2%	25,3%
ALDIBATERAKOAK				
Obra edo zerbitzukoak	100%	31,1%	68,9%	32,0%
Ekoizpenetakoak	100%	41,5%	58,5%	40,7%
Bitartekoak	100%	69,6%	30,4%	26,1%
Aldi partzialekoak	100%	70,8%	29,2%	39,7%
Praktiketakoak	100%	42,1%	57,9%	66,7%
Prestakuntzakoak	100%	31,9%	68,1%	99,5%
Gainontzekoak	100%	41,5%	58,5%	29,7%
Guztira	100%	47,5%	52,5%	37,0%
GUZTIRA	100%	46,9%	53,1%	36,1%

NAFARROAKO SOLDATAPEKO BIZTANLEGOA. 2000 URTEAN

ITURRIA: EPA

	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK	
GUZTIRA	100%	100%	100%	
EZMUGATUAK	74,2%	77,8%	68,7%	
ALDIBATERAKOAK	25,8%	22,2%	31,3%	
	GUZTIRA	16urtetik 24era	25urtetik 54era	55urtetik gora
GUZTIRA	100%	100%	100%	100%
EZMUGATUAK	74,2%	38,7%	78,0%	93,2%
ALDIBATERAKOAK	25,8%	61,3%	22,0%	6,8%

Egoera ekonomikoaren azterketa. 2000. urtea

KONTRATU MOTAREN ARABERAKO SOLDATAPEKO BIZTANLEGOA - 2000 URTEAN

ITURRIA: PRA

	E.A.E			Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	Guztira	Gizon	Emakum.	Guztira	Gizon	Emakum.	Guztira	Gizon	Emakum.	Guztira	Gizon	Emakum.
Guztira												
Ezmugatua	6,6%	72,0%	58,0%	76,3%	82,8%	66,7%	65,5%	69,9%	58,1%	63,7%	70,2%	53,7%
Aldibaterakoa	28,6%	26,8%	31,5%	18,7%	16,4%	22,2%	29,7%	28,6%	31,5%	31,7%	28,7%	36,0%
Kontratu gabe	4,6%	1,1%	10,3%	4,7%	0,6%	10,8%	4,7%	1,4%	10,3%	4,5%	0,9%	10,0%
Besteak	0,1%	0,1%	0,2%	0,3%	0,2%	0,3%	0,1%	0,1%	0,2%	0,1%	0,0%	0,3%
16 urtetik 24era												
Ezmugatua	25,9%	27,3%	23,9%	49,7%	54,0%	43,1%	23,1%	22,5%	24,0%	17,7%	20,1%	14,4%
Aldibaterakoa	65,8%	70,8%	58,6%	45,5%	44,3%	47,4%	68,5%	75,2%	59,0%	72,2%	78,5%	63,4%
Kontratu gabe	8,1%	1,5%	17,4%	3,9%	0,9%	8,5%	8,3%	2,1%	17,0%	9,9%	1,1%	22,2%
Besteak	0,3%	0,4%	0,2%	0,9%	0,8%	1,0%	0,1%	0,2%	0,0%	0,2%	0,3%	0,0%
25 urtetik 44era												
Ezmugatua	63,7%	68,5%	57,3%	76,6%	81,9%	65,4%	62,7%	65,9%	58,1%	60,1%	66,5%	52,1%
Aldibaterakoa	31,4%	29,9%	33,4%	20,1%	17,1%	23,9%	32,4%	32,1%	32,8%	35,2%	32,1%	38,9%
Kontratu gabe	4,8%	1,6%	8,9%	5,1%	0,9%	10,4%	4,8%	2,0%	8,8%	4,5%	1,3%	8,5%
Besteak	0,2%	0,1%	0,3%	0,2%	0,2%	0,3%	0,1%	0,1%	0,2%	0,2%	0,0%	0,4%
45 urtetik gora												
Ezmugatua	88,2%	91,9%	79,1%	90,9%	94,9%	82,3%	86,8%	90,7%	76,7%	89,2%	92,6%	81,0%
Aldibaterakoa	8,6%	7,9%	10,4%	4,7%	4,8%	4,5%	9,9%	9,1%	12,0%	8,5%	7,4%	11,1%
Kontratu gabe	3,1%	0,2%	10,5%	4,3%	0,1%	13,2%	3,3%	0,2%	11,3%	2,3%	0,0%	7,9%
Besteak	0,0%	0,0%	0,0%	0,1%	0,1%	0,0%	0,0%	0,0%	0,0%	0,0%	0,0%	0,0%